

Egilea: ARANTXA URRETABIZKAIA

Azken etxea

Kondagintza, 45

ISBN: 978-84-9172-278-6

21,5 x 15 cm • 160 or.

Salneurria: 14 €



Azken etxea

Azken etxearen bila dabil protagonista, bizitzaren azken arnasaldiaren bila, azken babes-lekuaren bila. Hendaia aldeko etxe bat begiz jo, eta harekin tematu da. Ez du bizimodu arrunta izan, eta ez dira arruntak izango azken etxe hori lortzeko egingo dituen ahaleginak. Tema horretan iraganeko mamuak, adiskideak eta hautuak orainaldikoekin korapilaturiko dira, elkar zelatatuko duten auzokideen giroan.

* * * *

«Bukatu dute zopa kaskamotzak esaten duenean ez duela ulertzen bizitza luzatzeko irrika hori, irautea helburu bakar izatea. Beste isilune bat dator segidan. Kaskagorriak esaten dio irautea bizitzea dela, iraun nahi duenak bizi nahi duela eta horrek ez duela ezer txarrik, berak luzaroan bizi nahi duela. Beltzez jantzitako emakumeak zertarako galdetzen dionean, ordea, ez du erantzunik. Eten luze baten ondoren, ahotsa harroturik erantzuten du. Bizitzeko, besterik gabe, bizitzeko.»



ARANTXA URRETABIZKAIA

1947an jaio zen. Kazetari lanbidez, prentsa idatzian, irratian nahiz telebistan egiten du lan. Idazle gisa poesia idazten hasi zen eta eleberriekin jarraitu. Narratibaren alorrean, *Zergatik*, *Panpox* (Hordago, 1979), *Koaderno gorria* (Erein, 1998), *3 Mariak* (Erein, 2010), *Zuri-beltzeko argazkiak* (Pamiela, 2014), *Bidean ikasia* (Pamiela, 2016; Euskadi Literatura Saria, 2017) dira lanik ezagunenak, horiek guztiak gaztelaniaz eta beste hainbat hizkuntzatan argitaratuak. *Maitasunaren magalean* poema liburuarekin lortu zuen Kritika saria 1982an eta *3 Mariak* eleberriarekin sari bera 2010ean.